



2003/03/14ko prentsa-oharra

EZKONTZEN ESTATISTIKA (EZKE)2002ko hirugarren hiruhilekoa

2002KO HIRUGARREN HIRUHILEKOAN, EZKONTZA GUTXIAGO IZAN ZIREN 2001EKO ALDI BEREAN BAINO

2002ko uztailean, abuztuan eta irailean 3.536 ezkontza kontatu ziren.

2002ko uztailean, abuztuan eta irailean 3.536 ezkontza kontatu ziren Euskal AEn, aurreko urteko hiruhileko berean baino %1,8 gutxiago, Eustaten datuen arabera. Lurralde Historikoka, bizkaitarrek 1.783 ezkontza ospatu zituzten, gipuzkoarrek 1.097 eta arabarrek 470. Euskal AEz kanpo bizi diren egoiliarren kasuan, ezkontzak 186 izan ziren.

Uztaila da, oraindik ere, ezkontzeko hilabeterik gustukoena

2001ean, tradizioaren kontra ezkontza gehieneko hilabetea iraila izan bazen ere, 2002an uztaila izan da, berriz ere, ezkontza gehien izan dituen, 1.428 izan baititu. Atzetik, irailak 1.412 izan ditu. Bestalde, oraingoan ere, abuztuan ospatu dira ezkontza gutxien (696).


Hiruhileko honetan nabarmen hasi dira Elizan ospatu diren ezkontzak. Neguko hilabeteetan ezkontzen erdia baino gehiago zibilak izan ziren arren, hiruhileko honetan ospakizunen %72,4 erlijiosoak izan dira. Araban ezkontza kanonikoak %69,6 izan ziren, Gipuzkoan %69,7 eta Bizkaian %73,6.

2002ko hirugarren hiruhileko horretako 3.536 ezkontzetan, bizilekua Euskal Autonomia Erkidegoan duten 3.407 gizonezko eta 3.487 emakumezko ezkondu ziren. Horietatik 3.248 senarrentzat (% 95,3), lehenengo ezkontza izan zen; eta 19 alargun eta 140 dibortziatu, aldiz, berriro ezkondu ziren. Lehen ezkontza zuten emakumeen ehunekoak gizonezkoena baino handixeagoa izan zen: aurretik ezkongabeak zirenak 3.352 izan ziren (% 96,1); alargunak, 11; eta dibortziatuak, 124.

Ezkontzak ezkontideek eztei-egunean zuten adinaren arabera banatuz gero, senarren artean, %61,3k 30 urtetik gora zituzten; emazteen artean, berriz, ehuneko horrek %31,4 hartu zuen.

	2002ko 3. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoa (2002ko 2. hiruhilekoa)		Aurreko urteko hiruh. bera (2001eko 3. hiruhilekoa)	
	kop.	%	kop.	%	kop.	%
EZKONTZAK	3.536		3.115		4.036	
Kanonikoak	2.561	72,4	2.086	67,0	3.065	75,9
Zibilak	975	27,6	1.029	33,0	971	24,1
SENARGIAK	3.407		3.008		3.790	
Ezkongabeak	3.248	95,3	2.807	93,3	3.611	95,3
Alargunak	19	0,6	21	0,7	16	0,4
Dibortziatuak	140	4,1	180	6,0	163	4,3
EMAZTEGAIK	3.487		3.067		3.853	
Ezkongabeak	3.352	96,1	2.906	94,8	3.689	95,7
Alargunak	11	0,3	7	0,2	11	0,3
Dibortziatuak	124	3,6	154	5,0	153	4,0

Ezkontzen hilez hileko mugimendua



Argibide gehiagorako:

 Eustat	Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
	Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz
	Tel.: +34-945 017 500 Faxa: +34-945 017 501 E-maila: eustat@eustat.es
	Harremanetarako pertsona: Martin Gonzalez Hernandez
	Tel.: +34-945 017 549 Faxa: +34-945 017 501
	Prensa-oharrak Interneten: www.eustat.es